

## **Hirugarren urratsa: prozeduraren azalpena**

### 1. BEHAKETA ARIKETA. Egunerokoa ezagutzen.

Kasu honetan, klubeko egun arrunt baten behaketa (eta grabaketa) egin dugu. Entrenamendu saioekin zein partidekin lotutako praktikak eta dinamikak behatu ditugu.

Ariketa aurrera eramateko klub bakoitzean talde bat edo bi izan ziren aukeratuak horien "egun/jardun normal" baten jarraipen zehatza egiteko. Kirol talde hauek aukeratzeko orduan ondorengo irizpideak betetzen saiatu gara:

- Talde horietan 12-18 urteko gazte kirolariak egotea.
- Orohar, behatuko diren taldeetan neska eta mutilen taldeak ordezkatuak egotea.
- Kirol disziplina ezberdinak ordezkatuak egotea.

Hauek lirateke egunorokoaren azterketa aurrera eramateko helburuak:

- Klubeko egun normal bateko jardunak jasotzea: zein praktika ezberdinak garatzen dira egun (arratsalde) normal batean klubean? Entrenamenduak? Partidak? Bilerak? Besterik? Zein kide daude inplikaturik jardun ezberdin hauetan? Kirolariak? entrenatzaileak? Zuzendaritza talde kideak? Gurasoak? Besterik? Zein presentzia du euskarak jardun hauetan?
- Klubeko errutinak (maiz errepikatzen diren jardunak) aztertzea: zeintzuk dira? Zer dago jardun horien erdigunean (gorputza? hitza? ekintza? materialak?...)? Zein zentzua dute errutina hauek? Noiz, nola eta zeinek gauzatzen dituzte? Zein presentzia du euskarak errutina horietan?
- Zuzendaritzaren papera eta lana egunerokoan: zuzendaritzako kide izatea egunerokoan: zeintzuk dira eginbeharrak?
- Egunerokoan gertatzen diren harremanak ikertzea: zein harreman mota ezberdinak agertzen dira? Zeinen artean? Nolako harremanak dira? Nola eta noiz azalaratzen dira harreman horiek? Zein pisua du euskarak harreman horietan?
- Egunerokoan azalaratzen diren emozioak jasotzea: egunerokoan gauzatzen diren jardunetan, zein emozio azalaratzen dira? Zeintzuk nagusitzen dira? Nola agertzen dira? Zein giro, zen afekto, zein esperientzia somatzen dira? Emozio horiek zein hizkuntzatan adierazten dira nagusiki?

## 2. ELKARRIZKETA SAKONA. Egunerokotasuna aztertzen.

Lehenengo bisita gidatua egin eta gero, ikerlariak grabazioa landuko du eta bigarren zita bat eskatu du. Aurretik, grabazioaren azterketan oinarrituta, ikerlariak gidoi bat prestatuko du. Gidoian, besteak beste, horrelako elementuak bildu daitezke<sup>1</sup>:

### 1.- Egunerokoa eta errutinak:

- 1.1.- Taldearen/taldeen egunerokotasuna: zeren baitan antolatzen da eguna/partida eguna; zein da (edo zeintzuk dira) antolaketarako ardatz nagusia(k)?
- 1.2.- Egunero errepikatzen diren errutinak (edo bestelako errutinak: asterokoak, hilabetekoak...). Errutina horietako protagonistak, zeintzuk dira?
- 1.3.- Errutinak astean zehar edo asteburuan (partidak daudenean) asko aldatzen dira? Zeren baitan aldatzen dira?
- 1.4.- Errutina guzti hauetan zein da zuzendaritzaren papera? Zeintzuk dira bere egin beharrak egunerokoa?

### 2.- Taldea/taldean antolaketa egunerokoa:

- 2.1.- Taldea/taldeak aurrera eramateko gakoak. Aurrera egiteko orduan, klubeko eta taldeko elementu, aspektu, pertsona eta jardun garrantzitsuenak.
- 2.2.- Antolaketarako irizpide nagusiak: lan ezberdinen antolaketa, ardura nagusiak eta horren banaketa.
- 2.3.- Antolaketarekin lotutako zailtasun handienak.

### 3.- Harremanak:

- 3.1.- Zein harreman mota topatzen dira klubean/talde(et)an? Nolako harremanak dira orohar? Edo zein harreman mota nagusitzen dira?
- 3.2.- Ezberdinen arteko harremanak (adin ezberdinen artekoak, neska-mutilen artekoak, entrenatzaile-jokalarien artekoak, kluba eta gurasoen artekoak...): nola ematen dira? Nola sortu eta nola garatzen dira?
- 3.3.- Zertan gauzatzen dira harreman horiek? Kanpotik etorria, non ikus daitezke harreman horiek?

### 4.- Esperientziak, emozioak...

- 4.1.- Antolaketa lanak eta errutinek sortzen dituzten emozioak, esperientzia, sententzioa(k).
- 4.2.- Lan hauen ezagutza: zeinen eskuetan dago? Badago transmisioa? Horrela bada, nola egiten da?

---

<sup>1</sup> Gidoian modu esplizitoan agertzen ez bada ere, kontuan hartu behar dugu hizkuntzaren gaia (euskara) zehar lerroa izango litzatekeela, horren gaineko hausnarketa bultzatu behar dugula gai ezberdinak lantzerakoan.